

SAN MIGUEL

— ARABA / ÁLAVA —

San Miguel herritxoa Gasteiztik 34 kilometro-ra dago. N-I errepidean zehar joaten da bertara, Gasteiztik Burgoserantz hartuta; 323 bidea hartu behar da gero Rivabellosa eta Rivagudarantz egiteko. Ondoren, A-4305 errepidean aurrera eginez gero, Rivabellosara iritsiko gara; herria zeharkatu eta A-4339 errepidean jarraitu behar da, Igaegi herriraino. Igaegin, kilometro batzuk aurrera eginda, San Miguelera iritsiko gara.

Inguruko beste herri batzuk ez bezala, San Miguel ez da ageri Donemiliagako monasterioari XI. mendean ordaintzen zioten herrien artean. Dena dela, pentsatzekoa da Erdi Aro Berantiarrean bazegoela San Pelayo eta Santurde herriak zeuden bezala; denak santuen izenekin eratutako toponimoak. Araba mendebaldeko lur horiek IX. eta X. mendeetan birpopulatu zituzten kanpotik etortzako jendearekin.

XV. mendean San Pelayo herrixkari lotuta zegoen, Riberako Ermandadeko herrigune gisa. Zenbait menderen ondoren, XIX. mendearen amaieran, jendez husten hasi zen herria, gaur egun arte. Orain herria biziberritu egiten da udako hilabeteetan. Pasa den mendeko 40ko hamarkadan, eliza berrizatzeko lanak egin zituzten, Carastako kanpaiak salduta lortutako diruarekin ordainduta. Carasta San Miguel iparraldean dagoen beste herri hustu bat da. Gaur egun Erriberabeitiko udalerriri dagokio.

El pequeño pueblo de San Miguel dista 34 km de Vitoria-Gasteiz. Accedemos a él a través de la N-I en dirección a Burgos, tomando el desvío por la salida 323 de Rivabellosa y Rivaguda. Por la carretera A-4305 se alcanza la localidad de Rivabellosa, que hay que atravesar para continuar por la A-4339, que lleva al pueblo de Igay. Desde Igay, a pocos kilómetros en dirección norte, se llega a San Miguel.

A diferencia de otras aldeas muy cercanas, San Miguel no aparece en el elenco de poblaciones que tributaban al monasterio de San Millán de la Cogolla, en el siglo XI. Sin embargo, hay que pensar que ya existiría en época altomedieval junto con otras poblaciones como San Pelayo o Santurde, cuyos topónimos hacen referencia a sus santos patronos. Estas tierras del occidente de Álava fueron repobladas durante los siglos IX y X, acogiendo gentes foráneas.

En el siglo XV aparece ligada a la aldea de San Pelayo, como otro núcleo de la Hermandad de la Ribera. Tras varios siglos de actividad, a finales del siglo XIX comenzó su despoblación hasta nuestros días, en los que recobra vida durante los meses estivales. En los años 40 del siglo pasado, se realizaron trabajos de restauración de la iglesia, costeados con el dinero obtenido de la venta de las campanas de Carasta, otro despoblado al norte de San Miguel. Hoy pertenece al ayuntamiento de Ribera Baja.

San Migel eliza / Iglesia de San Miguel

SAN MIGEL GOI AINGERUARI eskainitako eliza da, eta herriaren erdi-erdian dago, Erdi Aro berantiarreko beste tenplu baten zimenduen gainean eraiki zuten. Eraikinak ez du kulturik eta ez dihardu gaur egun eliza gisa; jatorrizko egitura gorde du, nahiz eta bertan behera lagata egon.

Oinplano angeluzuzena du, eta burualde zuzena nahikoa handia. Nabearen oinetan dagoen horman kanpai-horma bat dago altxatuta. Sasoi batean kanpaiak hartutako erdi-puntuko bi arkuk osatzen dute. Eraikinaren kanpoko

ESTA IGLESIA, dedicada a San Miguel Arcángel, se encuentra en pleno centro urbano de la localidad, edificada sobre los cimientos de otro antiguo templo de época altomedieval. Este edificio, sin culto y despojado de las funciones propias de una iglesia, conserva la estructura original pese a su actual estado de abandono.

Tiene planta rectangular, con cabecera recta de dimensiones considerables. En el muro de los pies de la nave se levanta su espadaña, formada por dos arcos de medio punto, que en su día albergaron las campanas. El exterior

aldeak ezagun du hainbat berrikuntza eta erantsi egin izan dizkiotela. Besteak beste, nabarmentzekoa da desnibela dagoela eraikinaren aurrealdearen –baxuagoa eta zaharagoa da, eta bertan da ia dekorazio erromaniko guztia– eta atzealdearen aldean, kanpai-horma garaiarekin.

Ondoan zituen beste eraikin batzuk kendu izan dizkiote, jatorrizko egitura berreskuratu nahian: esaterako, mendebaldeko aldean zegoen gela bat kendu zuten, eta haren ipar eta hegoko hormak baino ez zituzten gorde, eraikinari egokituta harlangaitzeko kontrahorma gisa erabiltza. Bertikaltasuna kentzen diote horretara tenpluari, eta bolumena aldatu egiten diote. Eraikin erromanikoko gainerako kontrahormak harlanduzkoak dira, eta altuera txikiagokoak, erremate gisako moldura txiki batekin goiko aldean.

Erdi Arotik, gezi-leiho bat gorde du eraikinak alboetako horma batean; barrutik, txarabeldu samar dagoela ikusten da. Beste leihoa kanpai-hormako arkuetako baten azpian dago, eta argi egiten dio elizako barrualde karratuari.

Eraikin erromanikotik gorde diren beste elementu batzuk dira hegoaldeko harburuak, ur biko teilatuaren hegala-

del edificio delata numerosas reformas y añadidos. Entre ellos, merece destacarse el desnivel que existe entre la parte delantera del edificio –de menor altura y más antigua, ya que en ella se concentra casi toda la decoración románica– y la parte posterior, con la espadaña más alta.


Se han ido eliminando otras construcciones anejas, en un intento por recuperar la estructura original, como un habitáculo que había en su lateral oeste, del que han quedado sus muros norte y sur, adaptados al edificio a modo de grandes contrafuertes de mampostería. Éstos le restan verticalidad y alteran su volumen. El resto de los contrafuertes del edificio románico son de sillares y de menor altura, con una pequeña moldura a modo de remate, en su parte superior.

De su pasado medieval se ha conservado una estrecha saetera en uno de los muros laterales, que desde el interior muestra un acentuado abocinamiento en su retalle. El otro vano que ilumina el interior de la iglesia es cuadrado, y se abre bajo uno de los arcos de la espadaña.

Otros elementos que hemos heredado de la construcción románica son los canecillos en la zona sur, distribui-


Kanpoaldea / Exterior





Oinplanoa / Planta

Ebaketa zeharka / Sección transversal





Harburuak

Canecillos

ren azpian jarrita. Harburuetako gehienek gila forma bakanak edo forma biribilak dituzte, beste bi izan ezik: batek buru baten irudia du –ile-adatsa du, eta aurrez aurre dago begira–; eta beste harburu batean, behera begira dagoen gila batean sartuta, munstro baten burua ageri da.

Elizaren barrua kanoi-ganga zorrotz batek dago estalita, eta parpain-arku zorrotzek eusten diote. Arkuok bi ataletan banatzen dute nabea: aurea, zaharragoa, eta atzea, geroagokoa. Alde hori bistan dago, lehen esan bezala, kanpotik tenpluan diren bi altuera desberdinei erreparatuz gero.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI - Planoak: DGMA

dos bajo el alero de la cubierta de teja de doble vertiente. La mayoría de ellos se presentan bajo formas sencillas de quilla o redondeados, a excepción de una cabeza humana, con una melena que recoge su cabello y que mira al frente, y otra cabeza monstruosa de ojos saltones y boca grande, incrustada en un canecillo de quilla que mira hacia abajo.

El interior de la iglesia está cubierto por una bóveda de cañón apuntada, soportada por arcos fajones, también apuntados, que dividen la nave en dos tramos diferentes: la parte delantera, más antigua, y la parte trasera, más tardía. Esta evidencia es palpable desde el exterior en la diferencia de altura de ambos cuerpos, como ya se ha comentado.

Texto y fotos: JCE/MLAI - Planos: DGMA

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 402.